

Biziraupenerako zaintza

Haur abandonatuak zaintzen zituzten Hernaniko inudeak

■ AMAIA RODRIGUEZ OÑATIBIA



Hernaniko Udaleko

Berdintasun Saileko IV. Ikerketa
Bekari esker 2019ko martxoan

“Biziraupenerako Zaintza.

Hernaniko inudeak 1900-1944”

ikerketa lana argitaratu zen.

Ikerketak artxiboko

dokumentazioa, ahozko

testigantzak eta garaiko

publikazioak eduki zituen

oinarritzat.

Zein ziren inudeak? Zein zen bere lana?

Inudeek biologikoki haienak ez ziren umeei ematen zieten bu-larra eta soldata jasotzen zuten trukean. Bi inude mota zeuden: hirietako familia aberatsen eta aberats berrien haurrak zaintzen zituztenak (horiek dirudun horien etxeetan egiten zuten lan) eta haur abandonatuak zaintzen zituzten inudeak.

Ikerketa honen bidez bigarren horiek ezagutu ahal izan ditugu, eta interes berezia dute: bate-tik, ez dira hirietako inudeak bezain ezagunak eta aitortuak (hirietako inudeak urteko gogor-tzen ditugu gure herrietan), eta bestetik, hirie-tako haur horiekin alderatuta, bestelako profila dute: kasu honetan ez ziren familia diruduneta-ko haurrak, ezer ez zuten haurrak baizik, aban-donuaren estigma zutenak, alegia.

Baina, zergatik abandonatzen ziren haurrak? Haur abandonatuak ilegitimoak ziren, bekatu baten ondorio zirenak, hau da, ezkontzaz kanpo-ko sexu harremanetatik sortuak. Eta garaiko mo-ralak ez zuen hori onartzen, inondik inora ere. Ezkontzatik kanpoko sexu harremanak arbuia-tzen zituzten, sexu harremanen helburua ugalketa baitzen.

Zer zen emakume eta ama izatea garai hartan?

XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasie-ran amatasun biologikoaren garrantzia emaku-meen identitatearen erdigunean jartzen hasi zen: emakume oso izateko modua haurrak edu-kitzea eta haien zaintza eta hezkuntzaz ardura-tzea zen. Hori zen emakumeei gizartean parte hartzeko edo ekarpen bat egiteko eskaintzen zie-ten modua, bai eta pertsona bezala asebate sen-titzeko eredua ere. Medikuntzak bultzatu zuen emakume eta ama prototipo hori.

Hori kontuan hartuta, inudeek bi kontraesan gorpuzten zituzten: lehenengoa, zaintza lanen trukean dirua jasotzea (berezko egitekotzat zeu-katen zaintza hori, maitasunez egin beharre-ko eginkizuna); eta bigarrena, ama biologikoen zaintzen ez zituzten haurrak haztea (zaintza des-plazatu egiten zen horrela: ama biologikoen ez zituzten beren haurrak zaintzen eta inudeak ez ziren behar bezala arduratzen besteen umeez).

Haur abandonatuak zaintzen zituzten inude hernaniarrak

Baina, nolakoak ziren Hernaniko inudeak? Nola-ko profila zuten eta zergatik hartzen zuten haur abandonatu bat etxera ekartzeko erabakia?

Haur abandonatuak zaintzen zituzten inudeak lan-gile klasekoak ziren, behar ekonomikoak zituzte-

nak; batzuk txiroak, beste batzuk ez horrenbeste, den-denak maila apalekoak ziren, beharrak ase-tzea ozta-ozta lortzen zuten horietakoak.

Inude hernaniarrek diru beharragatik zaintzen zituzten haur abandonatuak. Hau da, diru sarrera bat gehiago lortzea zen haur bat etxera ekartzea-ren helburua. Inudeen familiak kide askotakoak izaten ziren: senarra, inudea bera, seme-alabak eta aiton-amona edo izeba-osabaren batek osa-tzen zituzten familia horiek. Aurrera atera ahal izateko, bizirauteko, beharrezkoa zen kide guz-tiek ekonomian parte hartzea, haurrak barne. Hau izan zen *Anttoniren* kasua.

Anttonik familia handia osatu zuen bere senarrarekin batera: 5 haur izan zituzten guztira. Baserrian zuten bizibidea; eta ba-serriaren ardura nagusia, Anttonik. Bitar-tean, senarrak eguna etxetik kanpo ematen zuen elektrizista bezala lan egiten. Bular oparokoa izanik, haurretako bat jaiio ze-nean etxera beste bat ekartzea erabaki zuen Anttonik. Horrela, Fraisoron abando-natutako haur bat ekarri zuen baserrira, Joakin. Hala, beste diru sarrera bat lortu zuen Anttonik familia aurrera ateratzeko, hiru hilabetero Gipuzkoako Diputazioak Joakin hazteagatik ordaintzen ziona. Haur guztiak koskortzen zihoazen heinean, Joa-kin barne, baserriko lanetan hasten ziren, baita salmentan eta bestelako lanetan ere.

Hernanin horrelako hamaika kasu egon ziren, ho-rixe gertatzen baitzen inudeek haur abandonatu bat hartzen zutenean; haurra txiki-txikia zenean ekartzen zuten etxera eta horren trukean Di-putazioak lehenengo 6 urteetan soldata bat ordaintzen zien. Soldata hori etxeko diru sarreraren osagarri bihurtzen zen. Etorkizunean, gainera, soldata hori ez jasota ere, haur hori koskortzen zenean baserriko lanetan laguntzen aritzen zen eta dirutan kopuruan ordaintzen ez zen balioa zuen horrek: lanerako beste esku pare bat, beste lan esku bat zen.

Eredu hori izan zen ohikoena Hernanin, Gipuz-koako Diputazioa bultzatuta. Haur abandonatuak familia batean txertatzea zen helburua, eta bide batez, Diputazioari haur horren karga kentzea.



Beste eredu bat ere nagusitu zen: haur txiki bat garai labur batez etxera ekartzea, bular-emateak iraun bitartean, hain zuzen. Haur txiki horiek gerora Fraisoroko sehaska etxera itzultzen zituzten eta ez ziren familiako kide bilakatuko. Zergatik? Soldata handiagoa zen haur txikienak zaintzeagatik. Izan ere, abandonatutako jaioberriak heriotzera kondenatuak zeuden bularra emango zien andre bat lortzen ez bazuten. Beraz, eredu horretara jotzen zuten inudeek momentuko diru sarrera bat behar izaten zutenean, eta horrela epe-laburrerako biziraupen estrategia hobesten zuten. Haien nahia ez zen umeak gerora base-rrian ere laguntzea, baizik eta soldata ahalik eta altuena lortzea. Horrela, hainbat inudek haurrak Fraisorotik hartu eta bertara itzuli egiten zuten.

Azken eredu honek Diputazioaren helburuekin talka egiten zuen bete-betean. Inudeak lortzeko asmoz soldatak igotzeari ekin zion Diputazioak. Edonola ere, inudeenak merkatuko soldatarik baxuenak ziren. Soldatak igo arren Fraisorok umez beteta egoten jarraitu zuen eta askotan inudeei “karitatez” eta “sen onez” jokatzeko eskatzen zieten, emakumeak haurrak hartzera limurtzeko asmoz.

Ofizio baten desagerpena

XX. mendean zehar eraldaketa ekonomiko eta sozial ugari gertatu ziren eta inudeen lana desagertzen hasi zen, poliki-poliki. Batetik, moralitatea aldatu egin zen: XIX. mendean zehar inudeak kontratatzea estatusa adierazteko modu bat zen aberatsentzat. Bestetik, ezkontzaz kanpo haur bat izatea lotsagarria zen. Emakumeen egiteko saihetsezina bihurtu zen amatasuna, nahitaez bete beharrekoa, eta gizarteari egin ziezaioketen eskaintzarik osoena zen rol hori gogoz, amultsuki eta eztitasunez betetzea. Horrela, gutxinaka aberatsek inudeak kontratatzeari utzi zioten.

XX. mendearen erdialderako eraldaketa soziala egina zegoen: emakumean etxean, gizonezkoak fabrian. Emakumeek ama on izaten ikasi behar-ko zuten. Ordura arte, bularrean esnerik ez zuten emakumeek ezin zezaketen ama osoaren rol hori bete, baina arazo horrentzako konponbidea ere agertu eta zabaldu zen: formulako esnea.

Moralitatea gutxika joan zen aldatzen. Noski, egokiena ezkontza barruko umez erditzea zen oraindik ere, baina gaitzespen soziala aldatzen joan zen, poliki-poliki. Instituzioek eta zientziak ideia berri horiek zabaldu zituzten. Honela zioen garaiko testu batek:

“... Se defiende con el socorro a la madre soltera el derecho del niño a la leche materna y a la madre en su aspiración de no abandonarlo. La lactancia materna es incomparablemente mejor que la mercenaria y la solicitud y el cariño de la madre, son insustituibles...”

Horrela, haurren abandonua ere gutxitzen joan zen. Gauzak honela, ofizio tradizional bat galdu egin zen. Zaintza lanak lan erreproduktiboen parte izatera pasatu ziren, enplegu izateari utzita eta, noski, horietaz arduratzeagatik soldatarik jaso gabe.